

Kutxabankek sortutako bitartekoak 500 milioi euro kapitalean inbertitzeko hasierako konpromisoa du

INDAR sortu da, enpresa sendoetan edo hazten ari diren enpresetan epe luzera inbertitzeko

- Zorro dibertsifikatua izango du, eta ekonomiaren eragile diren enpresen edo hazkunde- eta hedapen-proiektuetan murgilduta dauden enpresen alde egingo du
- Irizpide profesioetan oinarrituta egingo ditu inbertsioak, balioa sortzea izanik xede, eta fundazio akziodunekin eta beste inbertitzaile batzuekin batera inbertitzeko aukerak aztertuko ditu
- Kutxabankek ez du baztertzeko INDARen inbertitzaileak sartzeko aukera, ezta etorkizunean bitartekoak kotizatze ere
- INDARen Kontseiluak Jose Iturriaga izendatu du buru
- BBK, Kutxa Fundazioa eta Vital erakundeek ongiatorria egin diote inbertsio-bitartekoari, eta indartu egin dute, hortaz, enpresa-sarearen alde egiten duten lan historikoa

2025eko martxoaren 18an. INDAR abiarazita, enpresetan epe luzeko inbertsioak egitearen alde egin du Kutxabankek, kapitalean 500 milioi euroko hasierako inbertsioa egiteko ahalmena baitu bitartekoak.

Kutxabankek bere posizioa indartu nahi du ekonomiaren eta industriaren sarea dinamizatzeari eta enplegua sortzeari dagokienez, eta horregatik sortu du INDAR, enpresa-ekimen estrategikoak sustatzeko eta finantzatzeko.

INDARen inbertsioetarako estrategiari eta filosofiari jarraikiz, zorro dibertsifikatua izango du, eta inguruko enpresetan —kotizatu gabeak edo kotizatuak— inbertituko du. Enpresa eragileak izango ditu xede, negozio-eredu sendoa dutenak edo hazkunde- eta hedapen-proiektuetan murgilduta daudenak. Epe luzeko inbertsioekin egingo du, eta balioa sortzen lagunduko die.

Inbertsioak aztertu eta irizpide profesionalen eta merkatu-irizpideen arabera egingo dira eta, horrenbestez, finantzen ikuspegitik zein ikuspegi estrategikotik erakargarri diren enpresetan inbertituko da. Era berean, fundazio akziodunekin eta beste inbertitzaile batzuekin enpresetan baterako inbertsioak egiteko aukerak aztertuko dira.

INDARek kudeaketa-egitura propioa izango du, profesional espezializatuekin, eta profesional horiek kudeaketa-lanetarako autonomia izateaz gain, Kutxabanken baliabideak baliatuko dituzte.

Kudeaketarako lantalde propioa duen inbertsio-bitarteko bat sortzea lagungarri izango da INDARen inbertitzaileak sartzeko, baita etorkizunean kotizatze ere, hala badagokio.

Kutxabankek akziodun diren BBK, Kutxa Fundazioa eta Vital fundazioek ongiatorria egin diote inbertsio-bitarteko berriari eta, era berean, enpresa-sarea indartzeko konpromiso historikoa nabarmendu dute, partaidetzapeko bitartekoaren bitartez areagotu baita orain, inbertsio-ekosisteman txertatuta.

Jose Iturriaga, lehen burua

INDAReko Kontseiluak Jose Iturriaga izendatu du zuzendari nagusi, finantzen eta inbertsioen sektorean eskarmentu handia duen aldetik.

Iturriaga (Zarautz, 1975) hainbat urtez aritu da Londresen eta Madrilen lanean, Goldman Sachs taldearen Fusioak eta Erosketak departamentuan, eta Tubos Reunidos taldean finantza-arloko zuzendari nagusi ere izan da. Berrikiago, Zor Pribatuko Funtzaren arduradun izan da Talde Gestión, SGEIC enpresan. Gaur egun Flysch Industrial enpresaren bazkide-sortzailea da.

Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria da, CFA, Finantzetako masterra egin du ICAI-ICADE unibertsitatean, baita *Master in Business Administration* ere, Finantzak, Kudeaketa Estrategikoa eta Kontabilitatea espezialitatean, *The Wharton School* erakundearen, Pennsylvaniako (Filadelfia, AEB) unibertsitatean.

Akzioak eskualdatzea

Kutxabanken Administrazio Kontseiluak Iberdrolaren akzioak (400 milioi euroko balioa) fundazio akziodunetara eskualdatzeko proposamena egin zuen, eta Kutxabankeko Akziodunen Batzar Nagusiak baimendu egin du eragiketa. Europako Banku Zentralaren (EBZ) onespena du eragiketa horrek.

Eragiketak bi helburu ditu. Alde batetik, bankuaren arrisku-profila indartzen du, energiaren arloko esposizioaren metaketa doitzen denez, eta industria-zorroa dibertsifikatzeko marjina ere lortzen du. Eta, bestetik, Euskadin oso errotuta dagoen erakundea izaki, Iberdrolan egun duen partaidetzari eusten zaio.

Akzioen eskualdaketak ez du eraginik bankuaren negozio-planetan, ezta dibidenduak banatzeko ohiko politikan ere. Eta kaudimen-mailan ere ez. Kutxabank da Estatu osoan kaudimen-maila handiena duen finantza-erakundea, Europak gainbegiratuta betiere; izan ere, 2024ko ekitaldia ixtean, CET1 phased-in ratioa % 17,46 izan du, eragiketa hori kontuan hartuta.

Konturako dibidendua eta kontseilaria berritzea

Kutxabankeko Akziodunen Batzar Nagusiak 83,8 milioi euroko konturako dibidendua banatzea ere onetsi du, 2024ko ekitaldiaren kontura.

Azken saioan, gainera, bankuaren gobernu-organo gorenak kontseilari-kargua berritu dio Hipolito Suarez, beste lau urterako.